

## Martin Ugaldere ezagutza

Pako Aristi

*Berria*, 2004-11-11: 40.

Nik Martin Ugalde ezagutu egin nuen. Beste askok ezagutu zuten, baina nik ere bai. Eta gaur, bera ezagutu zuten asko horien ordezkari moduan edo gonbidatua izan naiz hari buruz hitz egitera, eta nik ohore bat bezala sentitzen dut gonbidapen hau; gizon handi bati bere neurria eskaintzen asmatuko dudala pentsatuko zuten antolatzaileek. Ardura hori nahastuta dator nik Martin Ugaldere nion maitasunarekin. Bizitza baten edertasuna hitz gutxitan agertzea zein zaila den adieraziz hasi nahi dut nire lana.

Martin oso gizon interesgarria zen, hasteko. Hildakoak agudo fosilizatzeko ohitura dugu. Norbaiten izenarekin kaleak, enparantzak, sariak eta beste bataiatzen ditugunean hasten da fosilizatze lana. Ekintza horiek, hasiera batean, hura maite eta estimatu zutenek burutzen dituzte, hildakoak merezi duen ohore bat eman nahian, dudarik gabe. Gure herriak izen propioz beterik daude: Jose de Arteche, Nemesio Etxaniz, Jose Etxegarai, Txomin Agirre, Juan de Antxieta, Xabier Lizardi... baina gazteek ez dute izen hauen atzean dagoen obra, historia, tragedia ezagutzen. Gauza ederrak bizirik mantentzeko borrokan sartuak gaude etengabe. Horregatik esan egin behar da Martin Ugalde oso gizon interesgarria zela. Eta gazteei esan behar zaie: Gazteok, Martin Ugaldere liburuak ezagutzea oso interesgarria izan liteke zuentzat, ez dakizue zenbateraino!

Eusko Jaurlaritzako bere despatxoan ezagutu nuen. Ni oso gaxtea nintzen eta elkarrizketa bat egitera joan nintzaion. Jaurlaritzaren egoitza hura bunker bat iruditu zitzaidan, erainkuntzaren beraren formagatik, eta sartzeko iragan behar zenituen kontrolengatik; ertzainen begiratuak, karnetaren errepassoa, labanak ikusteko kontrol hura... Niri pena pixka bat eman zidan Martin han barruan enzerratuta aurkitzeak.

Nik ezagutzen nuen bere bizitza, bere biografia, nolakoak pasatu zituen, Venezuelen kazetari bezala egin zituen lanak, hango hizkera jasotzen, kalean bustitako esaldiekien estilo literario propioa sortzeko haren ahaleginak. Martin kazetaria zen, eta kalea da kazetariaren erreinua, benetako kazetari ausartaren erreinua.

Astea Gasteizen pasatzen zuela esan zidan, apartamendu bat alokatua zuela bertan. Asteburuero joaten zen Hondarribira, bere emaztearen ondora. Kasik estudiante bat bezala bizi zen. Galdera asko egin zidan berak, Euskal Herriaz, garaiko idazle puntakoei buruz, aldizkarien gainean, eta ez zen berak gauza haiek ezagutzen ez zituelako. Oso ondo ezagutzen zuen Euskal Herria. Zergatik orduan 60 urteko gizonaren galdeketa 20 urteko gazte ile luzedun *hippy*-ari? Kaletik urrun paratu zuten kazetariaren sena zebilen haren odolean borborka, jakinahia; aktualitateaz deskonektatu nahi ez zuen adimen zorrotzak bizi zuen Martin, eta horrek, ni, asko poztu ninduen.

Martin oso gizon leiala zen, konfidantzakoa. Gero Hondarribiko bere etxean bisitatu nuen. Garai hartan Egunkaria Sortzenen zebilen buru-belarri, lanbide politikotik urrunduta. Oso gauza sinpleak esaten zituen: euskaldunok euskararen inguruan batu

behar genuela, euskarazko prentsa behar genuela, lana egin behar genuela euskararen alde geure alderdikerien gaintik. Alabaina, politikari askok errepikatutako hitz haiek benetakoak gertatzen ziren Martinen ahoan, Martinek bere bizitzarekin bermatu zuelako, behin eta berriz, eta etengabe, hitz haien esanahia.

Gauzak garbi esango ditut, badugu eta ordua gure artean garbi hitz egiteko. Euskal kultura bizirik mantendu nahi dugunon artean, euskal letrak moderno ikusi nahi ditugunon artean beti egon da mesfidantza izugarria jeltzaleekiko, agian eurak gurekiko zuten mesfidantza beraren ispilu edo ordaina izan zitekeena. Baina nik nire aldetik hitz egin behar dut, eta nire ikuspuntutik ikusi dudana kontatu. Boterearen mundua urruna egin zaigu guri, gutako askori, fidagaitza iruditu izan zaigu. Boterea askotan negozioak aurrera ateratzeko erabili izan den esparru bat baino ez da izan, eta egoera horretan kultura eta hizkuntza onartu beharreko aitzakiak baino ez ziren, botereak gaintik kendu ezin zituenak, koartada bat ematen ziotelako. Nire (eta gutako askoren) irudipena hori zen, eta erabilera arre eta anker horretan Martin Ugaldereen hitza gardena izan zen beti, haren presentziak garbitu egiten zituen iluntasunak eta errezeloak. Eskutik heldu eta edonora lagunduko liokeen maitearen ondoan bezala sentituko zen Martinekin harremanetan hasitako edonor: erne, lasai eta konfidantzan.

Ez nuen *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrera gertu-gertutik ere bizi izan, baina Martin Ugaldereen itzala oso handia zela iruditzen zitzaidan nire urruntasunetik, itzal abegikorra, ezeren truke ematen den ondasun bat bezalako. Martin Ugaldek zubi lana egiten zuela iruditu zitzaidan, modu harrigarrian beti zutik iraun duen zubia eraiki zuela. Eta hori Martinen beraren meritua baino ez da, guk txapela ibiliko bagenu hura burutik erantsiz agertu beharko geniokeena. Euskal kulturari bizirik eutsi nahi zion ezkertiar koadrila artera bajatu zen jeltzale bakarrenetakoa izan zen, gure zorionerako.

Bere bizitzaren azken aldera kulturgileen artean, urte batzuetan behintzat tamalez ohikoa bilakatu den egoeraren eredu bilakatu zen, ezta madarikatzeko ere izenik jarriko ez diogun Madrileko epaile ziztrin batek auzitan jarri zuenean. Diru-kontuak blokeatu zizkion, enbargatu, gure arteko epelena ere amorrarazi zuen erabaki zaputuz baten bitartez. Hil ondoren eman zion berriro bere diruak gastatzeko aukera, gure herria desagerrarazi ondoren gure eskubide guztiak erabiltzeko aukera emango ligukeen bezala.

Izango zituen Martinek bere itzalak, baina gutxi, seguruenik. Nik ez nizkion ezagutu behintzat. Gizon argia zen, bizia, eta argitasuna barreiatzen zuen bere inguruan, bizitasuna. Ez dakit hitz hauek idazteko argitasuna ez ote didan berak eman, ez dakit ez ote dituen bere bizitasunaren oroimenak hitz hauek nere baitatik atera, idazten hasi eta bat-batean, berehalakoan, aspalditik pentsatuta baneuzka bezala atera baitzaizkit, erreskadan, bata bestearen atzetik, elkarri lekua eskatzen, hitz guztiak zer esana balute bezala. Martini buruz aritzerakoan hiztegiko inork ez zuen golkoan gordeta geratu nahi. Denak hasi dira dantzan, eta nik aukeran ekarri dikizuet hitz horietako batzuk.

Niri lagundu didate sentitzen nuena zehazten. Zuei lagundu badizue falta dugun norbait hobeto ezagutzen, ni pozik geratuko naiz.

Eta Martin Ugaldek galderak egiten jarraituko du dagoen tokian.